

**1) Kolegiazioa:**

- a) Farmazia bulego batean laguntzaile bezala (farmazeutikoa ez) edo farmazeutiko bezala lan egiteko kolegiatua egotea derrigorrezkoa da
- b) Derrigorrezkoa izango de kolegiatzea bakarrik farmazeutiko titular edo erregente bezala jarduteko; farmazeutiko laguntzaile edo ordezko bezala lan egiteko nahikoa da erantzukizun zibileko aseguru ordaintzearekin.
- c) a eta b zuzenak dira
- d) a eta b okerra dira

**2) Farmazia bulego berri bat irekitzeko prozedura Euskal Autonomia Erkidegoan:**

- a) Jardunerako baimena eskuratu eta gero, farmazia bulegoak 10 eguneko epea dauka irekitzeko
- b) Prozedurari hasiera, ofizio bidez osasun administrazioak edo agintaritza lokalek emango diote
- c) Farmazia bulegoa, antzinatean gehien duen eskalek eskuratuko du
- d) Guztiak okerrak dira

**3) Farmazia Bulegoetako laguntzaileak (adjuntoak)**

- a) EAEan ondokoen kontratazioa, besteak beste, fakturazioaren arabera zehazten da
- b) EAEan titularrak 65 urte baino gehiago baditu, beti ondoko bat kontratatu behar da
- c) Biak zuzenak dira
- d) Biak okerrak dira

**4) Osasun Zona bat baino gehiago dituen Zona Farmazeutiko batean 12.900 biztanle daude eta 4 farmazia bulego. Zenbat biztanle gehiago behar dira farmazia bulego berria irekitzeko?**

- a) 2400
- b) 3100
- c) 800
- d) 1100

**5) EAEko farmazia bulego batean bi titularkideek eta farmazia laguntzaile batek (lanaldi osoko kontratuarekin eta 3 urteko lan esperientziarekin farmazia horretan) lan egiten dute. Aurreko urtean 117.000 jarduera profesional izan zituzten. Farmazeutiko adjunto bat kontratatu beharko dute?**

- a) Ez, baina laguntzailerik ez balute bai
- b) Ez, eta laguntzailerik ez balute ere ez
- c) Bai
- d) Bai. Bi laguntzaile beharko ziren adjunturik behar ez izateko

**6) Farmazia bulego baten eskualdatzea:**

- a) Farmazeutiko bat edo gehiagoren alde izan behar da
- b) AEEE bakoitzak prozedura ezarriko du
- c) Legeak, gaitasungabetze profesional edo penal zigorragatik farmazia bulegoa klausuratu edo itxi bada, eskualdatzea debekatzea jasotzen du
- d) Aukera guztiak zuzenak dira

**7) Farmazia bulego baten erregentea:**

- a) Farmazia bulegoaren jabea eta titularra da, farmazia bulegoaz arduratzen dena
- b) Heriotza kasuan, besteak beste, aldi-bateako titularraren edo titularkidearen funtzioak betetzen dituen eta ardurak hartzen dituen pertsona da.
- c) Amatasun kasuan, besteak beste, titularraren edo titularkidearen funtzioak betetzen dituen eta ardurak hartzen dituen pertsona da
- d) Farmazeutiko titularraren ardurapenean lan egiten duen farmazeutikoa da

**8) Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleen ordenazio farmazeutikoari buruz, zuzena aukeratu**

- a) Sendagaien gordetegiek derrigorrez ospitaleko farmazian espezialista bat izan behar dute
- b) Ospitaletako farmazia zerbitzuek, ospitaleko farmazian espezialista bat izan behar dute titular erantzule gisa
- c) Farmazia zerbitzuen baimena urtero berritu behar da
- d) Guztiak zuzenak dira

**9) Botikinak**

- a) 800 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan ezin da botikinik egon
- b) Osasun administrazioak soilik eman diezaioke hasiera botikinak irekitzeko prozedurari
- c) Biak zuzenak dira
- d) Biak okerrak dira

**10) Farmazia Bulegoen eskualdatzea Euskal Autonomi Erkidegoan**

- a) Bakarrik eskualdatu daiteke baimendu zenetik gutxienez bost urte pasa direnean
- b) Bakarrik eskualdatu daiteke baimendu zenetik gutxienez hiru urte pasa direnean
- c) Farmazia bulego baten eskualdaketa prozeduran parte hartu ahal izateko arreta farmazeutikoan gutxienez bost urteko esperientzia kreditatu behar da.
- d) a eta c zuzenak dira